**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA**

**2016ko abenduaren 23a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamaseigarren urteko abenduaren hogeita hiruan, ortziralea, ilunabarreko zazpietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Jose Luis Echegaray Andueza alkate jaunaren lehendakaritzapean eta honako zinegotzi hauek etorri direla: Iban de Prado Etxepeteleku, Pedro Apezteguía Alzugaray, Maria Victoria Gortari Aldave, Esteban Irazoqui Irazoqui, Jose Maria Portu Ochoteco, Maider Arrieta Tapia, Lorea Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote eta Mattin Etxabide Gartzia jaun-andreak.

Oier Iantzi Ordoki zinegotzi jauna etorri da bilkurara gai-zerrendako lehenbiziko puntua tratatzen ari direnean.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago Udalaren web orrian zintzilikatzeko xedearekin. Akten idazkerari dagokionez, kontuan hartu da 2016ko maiatzaren 20an eginiko bilkurako 1. puntuan adierazitakoa.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta, deialdiari jarraituz, honako gai hauei buruz

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO**

**23 de diciembre de 2016**

En el Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las diecinueve horas del viernes 23 de diciembre del año dos mil dieciséis, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don José Luis Echegaray Andueza y con la asistencia de los siguientes concejales: don Iban de Prado Etxepeteleku, don Pedro Apezteguía Alzugaray, doña María Victoria Gortari Aldave, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco, doña Maider Arrieta Tapia, doña Lorea Flores Compains, don Severiano Txoperena Matxikote y don Mattin Etxabide Gartzia.

El concejal don Oier Iantzi Ordoki se incorpora a la sesión en el transcurso del primer punto del orden del día.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal. En cuanto a la redacción de las actas, se tiene en cuenta lo indicado en el punto 1 de la celebrada el 20 de mayo de 2016.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la

aritu dira:

convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA**

Eztabaida hasi da aktan ez delako agertzen Mattin Etxabide zinegotzia bilkura horretara ez etortzearen arrazoia. Horri buruz eztabaidatzen ari direnean, sartu da bilkurara Oier Iantzi Ordoki zinegotzia. Eztabaidan parte hartu dute alkateak eta Maider Arrieta, Mattin Etxabide eta Lorea Flores zinegotziek.

Hura amaitutakoan, Osoko Bilkurak, aho batez, azken bilkurako akta onartu du, 2016ko azaroaren 25ekoa.

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN**

Se inicia un debate en relación al hecho de que no se hace constar el motivo por el que el concejal Mattin Etxabide no acudió a esa sesión. En el transcurso del mismo se incorpora el concejal Oier Iantzi Ordoki. Intervienen en el debate el alcalde y los concejales Maider Arrieta, Mattin Etxabide y Lorea Flores.

Finalizado el mismo, el Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 25 de noviembre de 2016.

**2 – 2017. URTERAKO UDALAREN AURREKONTU OROKORRA. HASIERAKO ONESPENA**

Espedientean ageri da udal-aurrekontu orokor eta bakarraren proiektua. Era berean, idazkariak 2016ko abenduaren 16an emaniko txostena ageri da.

Eztabaida luzea izan da eta bertan parte hartu dute Lorea Flores eta Mattin Etxabide zinegotziek eta alkateak.

Hura amaituta eta Geroa Baiko zinegotzien aldeko sei botoekin eta EH Bilduko bortzen kontrakoarekin, Osoko Bilkurak honakoa erabaki du:

1 – Hasiera batean onestea Lesakako Udaleko 2017. urterako aurrekontu orokor eta bakarra, baita hura betearazteko oinarriak ere.

**2 – APROBACIÓN INICIAL DEL PRESUPUESTO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO PARA EL AÑO 2017**

Consta en el expediente el proyecto del Presupuesto General Único del Ayuntamiento. Figura también en el mismo un informe emitido por el secretario con fecha 16 de diciembre de 2016.

Se produce un largo debate con las intervenciones de los concejales Lorea Flores, Mattin Etxabide y del alcalde.

Finalizado el mismo y con los seis votos a favor de los concejales de Geroa Bai y los cinco en contra de EH Bildu, el Pleno acuerda:

1º) Aprobar inicialmente el Presupuesto General Único del Ayuntamiento de Lesaka para el año 2017, así como las Bases de Ejecución del

Gastuak eta diru-sarrerak 2.594.740,00 euroko kopuruan orekatuta daude. Andra Mari Zahar-Etxea Erakunde Autonomoarenak, berriz, 729.000,00 euroko kopuruan orekatuta daude.

mismo. Sus gastos e ingresos están nivelados en la cantidad de 2.594.740,00 euros. Por su parte los del Organismo Autónomo Residencia Andra Mari están nivelados en la cantidad de 729.000,00 Euros.

2.) Espedientea udal-idazkaritzan ikusgai edukitzea, hamabortz egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-taulan iragarri eta gero, herritarrek edota interesdunek espedientea aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

2º) Exponerlo en la Secretaría municipal por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

**3 – ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

**3 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA**

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy. A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea cuestión alguna.

**4 – OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK**

**4 – ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS**

Maider Arrieta galdetu du ea zergatik aldatu den **alkateordeen ordena**. Alkateak erantzun dio barne antolakuntza arrazoiengatik izan dela.

Severiano Txoperenak galdetu du ea zein arrazoiengatik ez den argitaratu Nafarroako Aldizkari Ofizialean **lur urbanizaezineko hirigintzako Udal Planaren Aldaketaren** behin betiko onespena, administrazio-isiltasunagatik. Alkateak adierazi du negoziazio bat izan dela eta Departamentuaren konpromisoa dagoela azken honek aipaturiko behin betiko onespen hori bizkortzeko. Horregatik gibeletu da egun batzuk. Departamentuak onespen hori ematen ez badu, Udalak argitaratuko du.

Ondoren eztabaida izan da gai horren eta isilbide positiboari buruzko txostena egin duen abokatuaren minutaren inguruan. Parte hartu dute alkateak eta Mattin Etxabide eta Lorea Flores zinegotziek.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta berrogeita lau minutu direnean eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

Maider Arrieta pregunta por los motivos que han llevado a modificar el **orden de los tenientes de alcalde**. Responde el alcalde que ha sido por razones de organización interior.

Severiano Txoperena se interesa por las razones que justifican la no publicación en el Boletín Oficial de Navarra de la aprobación definitiva, por silencio administrativo, de la **modificación del Plan Municipal de urbanismo en el suelo no urbanizable**. El alcalde indica que ha habido una negociación y un compromiso del Departamento para que éste último acelere dicha aprobación definitiva. Por ello se ha retrasado unos días. En el caso de que no se produzca esa aprobación por el Departamento, el Ayuntamiento procederá a la publicación.

Seguidamente se produce un debate sobre esta cuestión y la minuta del abogado que emitió el informe sobre el silencio positivo. Intervienen el alcalde y los concejales Mattin Etxabide y Lorea Flores.

Siendo las diecinueve horas y cuarenta y cuatro minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.